

OHIKO GALDERAK

IKERTZAILEEN MUGIKORTASUNA 30 ETA 150 EGUN BITARTEKO EGONALDIETAN

DEIA EGITEN DUENA: UPV/EHU

MESEDEZ, IRAKURRI DOKUMENTU HAU ARRETA HANDIZ GALDERARIK EGIN BAINO LEHENAGO

Azalpen hauek irakurri ondoren informazio gehiago behar baduzu, idatzi helbide hauetara:

- Laguntza eman aurreko gaiei buruzko informazioa nahi baduzu: convocatorias.dgi@ehu.eus
- Laguntza eman ondoko gaiei buruzko informazioa nahi baduzu: rrhh-inves.dgi@ehu.eus

Gida hau laguntza emateko egin da, eta inola ere ez du ordezkutzen deialdia. Desadostasunik egonez gero, deialdian adierazitakoa lehenetsiko da.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

1. Zein da eskaerak aurkezteko epea?

Deialdi hau urte osoan dago irekita. Urte hasieran ez badago onartuta urte horretako deialdia, aurreko urtekoak segituko du indarrean. Hau da, urtarrilean ez badago argitaratuta deialdi berria, eskaerak aurkeztu ahal izango dira aurreko urteko deialdiaren barruan. Eskaera aurkeztu behar da eskatutako egonaldiaren hasiera eguna baino 30 egun lehenago, gutxienez. **Egonaldia hasi ondoren egingo diren eskaerak EZ dira onartuko.**

2. Denbora gainera etorri zait eta ezin dut aurkeztu eskaera 30 egun lehenago. Ondorioak zeintzuk dira?

Eskaera ez bada aurkezten 30 egun lehenago, % 75eko aurrerakina jasotzeko eskubidea galtzen da.

3. Non eta nola aurkeztu behar da eskaera?

Bi kopia aurkeztu behar dira. Alde batetik, eskaera eta dokumentuak convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar dira, PDF formatuan; bestetik, dokumentu guztiak erregistroan aurkeztu behar dira, paperean, hona zuzenduta: Ikerketaren arloko Errektoreordetza, Deialdien Atala, Errektoregoa.

4. Zer da ORCID kodea?

Lan zientifikoaren egileentzat sortzen den identifikatzaile bakarra da, 16 digituz osatutako kodea esleitzen diena ikertzaileei Informazio gehiago esteka honetan: <https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteca/orcid>. Zalantzarik izanez gero, idatzi hona: orcid@ehu.eus

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

5. Doktoregoko ikaslea naiz. Aurkeztu dezaket eskaerarik ez badaukat lan loturarik UPV/EHUrekin?

Ez. Deialdiko 4.1 oinarriak eskatzen du UPV/EHUrekin lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa izatea.

6. Kontratua sinatu berri dut UPV/EHUrekin. Eska dezaket laguntza hau?

Ez. Gutxienez urte bateko antzintasuna izan behar da UPV/EHUUn eta lan lotura indarrean egon behar da gutxienez mugikortasuna amaitu arte.

7. Unibertsitateko bitarteko lan kontratuduna naiz. Eska dezaket laguntza hau?

Ez. UPV/EHUrekin duzun lan harremana ez bada 4.1.a eta 4.1.b oinarrietan adierazitakoetako bat, ezin duzu hartu parte deialdi honetan.

8. Lan edo zerbitzu jakinerako kontratatutako ikertzailea naiz. Eska dezaket laguntza hau?

Ez. Lan edo zerbitzu jakinerako kontratatutako ikertzaileak deialditik kanpo daude (4.1.c.ii oinarria).

9. Arduraldi partzialeko kontratua daukat. Eska dezaket laguntza hau?

Ez. Arduraldi partzialeko kontratua dutenak deialditik kanpo daude (4.1.b oinarria).

10. FPI laguntza daukat. Eska dezaket laguntza hau?

Ez. Zure deialdiaren barruan laguntzak daude egonaldiak egiteko.

11. FPU laguntza daukat. Eska dezaket laguntza hau?

Ez. FPU laguntza duzuenok ministerioaren deialdia daukazue, urtero argitaratzen dena laguntzak emateko egonaldi laburretarako eta aldi baterako leku aldaketetarako.

12. Doktorego aurreko kontratua daukat Eusko Jaurlaritzarekin. Eska dezaket laguntza hau?

Ez. Eusko Jaurlaritzaren doktorego aurreko ikertzaileek badute deialdi propio bat, egonaldiak egiteko Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza aurreko Programa aplikatzen den zentroez bestelakoetan: **EGONLABUR**.

13. Ez naiz ikertalde bateko kide. Eska dezaket laguntza hau?

Kasu horretan, eskatu ahal izateko, ikerketa proiekturen batean egon behar duzu. Deialdiko 4.2 oinarriak dio eskatzailea ikerketa proiekturen batean edo ikerketan diharduen ikertalderen batean aritu behar dela, hala finantzatua nola finantzatu gabea.

14. Ramón y Cajal motako kontratua daukat, baino ez naiz beste ikertalde bateko kide. Eska dezaket laguntza hau?

Bai, laguntza hauen bidez proiektu jakin bat aurrera eramateko finantzaketa eman daitekeelako.

15. Juan de la Cierva (Incorporación) motako kontratua daukat, baino ez naiz beste ikertalde bateko kide. Eska dezaket laguntza hau?

Bai, laguntza hauen bidez proiektu jakin bat aurrera eramateko finantzaketa eman daitekeelako.

16. Betetzen ditut Eusko Jaurlaritzaren IKERMUGIKORTASUNA laguntza eskatzeko baldintzak. Eska dezaket UPV/EHUren mugikortasun laguntza?

Ez. **IKERMUGIKORTASUNA** programako baldintzak betetzen dituen eskatzaileak Eusko Jaurlaritzaren deialdian eskatu behar du laguntza. Euskal Herriko Unibertsitatearen deialdia da Eusko Jaurlaritzarena eskatu ezin dutenentzat, salbu eta, eskaria eginda, finantzaketarik lortzen ez badute (4.2.a oinarria).

17. Erabakiaren zain dagoen ikertalde batean nago gaur egun. Eska dezaket mugikortasuna?

Erabakia jaso arte itxaron dezakezu, edo mugikortasuna eskatu adierazita parte hartzen duzula talde eskaeran. IGBBk baloratuko du baldintza hori betetzen den ala ez.

18. UPV/EHUkoa ez den ikertalde bateko kidea naiz. Aurkez dezaket eskaera talde horren izenean?

Ez, Euskal Herriko Unibertsitatea izan behar delako proiektuaren finantzazioaren onuradun. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egiaztatuko du bere datu basean eskaeran agertzen den taldeak edo proiektuak betetzen duen baldintza hori.

DOKUMENTAZIOA

19. Oraindik ez daukat bisatuaren egiaztagiririk. Nola froga dezaket tramitatzen ari naizela?

Bisatuaren 200 euroak eskuratu ahal izateko, bisatua tramitatzen ari zarela egiaztatzen duen edozein agiri aurkeztu behar duzu. Bisatua tramitatzeko beharrezkoa baduzu mugikortasun eskaeraren egiaztagiri bat ingelesez, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eman ahal dizu.

20. Zein motatakoa izan behar da aurkeztu behar duan zinpeko aitortpena?

Eskaeran bertan dago eskatzaileak bete behar duen aitortpena, data jarri eta sinatu behar duena.

21. Non erregistratu behar dut eskaera?

Eskaerak aurkeztu beharko dira UPV/EHUren Egoitza Elektronikokoan dagoen erregistro elektronikoen bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "Eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Mugikortasuna 2021".

22. Egongo naizen ikerguneko arduradunaren onarpen gutunerako eredurik ba al dago?

Ez, ez dago eredurik; testu librea da.

23. Ba al dago eredurik nire curriculumak idazteko?

Deialdian ez dago zehaztuta curriculumak nolakoak izan behar den. Dena den, curriculum arautua erabiltzea gomendatzen dizuegu. Hemen aurki dezakezue: <https://cvn.fecyt.es/editor/#HOME>

EBALUAZIO BATZORDEA

24. Zer da IGBB?

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea (IGBB) arduratzen da aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeaz.

25. Zenbatero egiten ditu bilerak?

Normalean bilera bat egiten du hilean, abuztuan izan ezik.

26. Zenbat denbora behar izaten da eskaera ebazteko?

IGBBren bilera bakoitzaren ondoren, hartutako erabakia bidaltzen dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskatzaile bakoitzari.

27. Eskaerari ezetz esanez gero, zer egin dezaket?

Erabakian bertan aipatzen dira zeintzuk diren aurkez daitezkeen errekurtsioak: aukerako berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean; eta administrazioarekiko auzi errekurtsioa, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzietarako Bilboko epaitegietan.

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA, NOLA BANATZEN DA?

28. Laguntza zertarako da?

Laguntza hiru kontzeptu hauetarako ematen da:

- 30 euro egunean, osatu eta mantenu gastuetarako.
- Horrez gain, beste kopuru bat ordainduko da, joan-etorriko bidaiari bati aurre egiteko, honela banatuta:

Jatorritik helmugara bitarteko distantzia	Gehieneko kopurua
1.000 km arte	300 euro
1.001 eta 2.500 km bitartean	600 euro
2.501 eta 11.000 km bitartean	1.000 euro
11.000 km baino gehiago	1.200 euro

- 200 euroko gehigarri bat emango da, bisatu bat izapidetzea beharrezkoa den joan-etorrietarako.
- PCR: PCR testaren kostua ere ordainduko da, gastua justifikatu ondoren, nahitaez egin behar izan bada.

29. PIF naiz eta jakin nahi dut zenbatekoa den mantenu gastuetarako laguntza, eguneko.

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileek duten laguntza da 25 euro egunean. Deialdiko 5.1 oinarriaren arabera, UPV/EHUko doktorego aurreko ikertzaileen baldintzak eta Eusko Jaurlaritzakoenak parekatuta daude.

30. Prestakuntza bidean dagoen ikertzailea naiz UPV/EHU eta 150 eguneko egonaldia egin nahi dut.

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileei laguntza 90 egunerako ematen zaie, gehienera. Deialdiko 5.1 oinarriaren arabera, UPV/EHU prestakuntza bidean dauden ikertzaileen baldintzak eta Eusko Jaurlaritzakoenak parekatuta daude. Edonola ere, ikertzaileak 150 eguneko egonaldia egin ahal izango du, jakinda bere gain hartu beharko dituela 90. egunetik aurrerako gastuak edo beste finantzaketa bide bat izan behar duela horretarako. Edozein kasutan, egonaldiko egun guztiak justifikatu beharko ditu, itzulerako bidaiaren laguntza jaso ahal izateko.

31. Mantentze gastuetarako laguntza berbera da beti, edo herrialdearen arabera aldatzen da?

Ostatu eta mantenu gastuetarako laguntza da 30 euro egunean, bider egonaldiko egun naturalen kopurua (150 gehienera), herrialdea edozein dela ere. Gogoratu doktorego aurrekoen kasuan mantenu gastuetarako laguntza dela 25 euro egunean, bider egun naturalen kopurua (90 gehienera).

32. Nola kalkulatu da jatorriaren eta helmugaren arteko distantzia?

Nahiz eta deialdian ez dagoen zehaztuta nola kalkulatu den, Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duen prozedura bera erabiltzen dugu guk ere: <http://es.distance.to> Jatorritzat hartzen da kasuan kasuko zentroa kokatuta dagoen probintziako hiriburua. Oro har, joan-etorriak garraio bide kolektiboetan egingo dira.

ORDAINKETAK NOIZ EGITEN DIREN

33. Ordainketak noiz egiten dira?

IGBBren erabakia aldekoa bada, onartutako laguntzaren % 75 aurreratzen da, aurretik eman beharreko **behin betiko baimena bidali eta gero**. Gainerako % 25a jasotzen da egonaldiari buruzko dokumentuak aurkeztu ondoren.

Justifikazioa nahikoa ez bada, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak justifikatu ez dena itzultzeko eskatu ahal izango du.

34. Nola eska dezaket baimena?

Mugikortasuna hasi baino lehenago egonaldia baimenduta egon behar da, hau da, eskaera eginda eta onartuta egon behar da.

Eskaera egiteko "Lizentziak eta baimenak" aplikazioa erabili behar da: <https://gestion-servicios.ehu.es/pdiProcedure/katalogoa?check=ok&langId=eu>

Bi aukera daude: 15 egun baino gehiagoko iraupena duten ekitaldi kolektiboetara joatea, edo lanpostuarekin zein eginkizunekin lotura duten ikasketak egitea. Zalantzarik izanez gero, galdetu sailean edo IRLen Errektoreordetzan.

EGONALDIAREN IRAUPENA

35. Zer gertatzen da egonaldia eteten badut?

4.3.b oinarriak dio mugikortasunak eskatzen duela bizilekua aldatzea mugikortasun aldi **osorako**.

Egonaldia eteten bada, **arrazoia edozein izanda**, jakinaren gainean jarri behar da Ikerketaren arloko Errektoreordetza, eta zati proportzionala kenduko da laguntzatik, egonaldiko egun bakoitzeko ematen baita laguntza. Egonaldiaren eten hori egonaldiaren ziurtagirian agertu behar da, eta ahalik eta azkarren jarri behar da jakinaren gainean Ikerketaren arloko Errektoreordetza.

Gutxieneko egonaldia 30 egunekoa da eta epe hori baino lehenago eteten bada ez da betetzen deialdiak dioena. Halakoetan, jasotako laguntza osoa itzuli beharko da. Behar bezala akreditatutako salbuespen kasuak baloratu egin ahal izango dira.

UPV/EHUren MUGIKORTASUN LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

36. Zein da dokumentuak aurkezteko epea?

Hilabete, egonaldia amaitzen denetik hasita.

37. Zein dokumentu aurkeztu behar da?

- Egonaldiaren ziurtagiria.
- Bidaia gastuak
- Bisatuaren gastuak (halakorik egonez gero)

38. Egonaldiaren ziurtagiria. Ohiko akatsak:

Dokumentuaren data	Dokumentuaren data ziurtatzen den egintzaren ostekoa izan behar da
Sinadura	Sinadura jatorrizkoa izan behar da, edo ziurtagiri digitalaren bidezkoa. Sinadura eskaneatuek ez dute balio.
Egonaldiaren datak	Egonaldiaren benetako datak zehaztu behar dira, eta data horiek bat etorri behar dira joan-etorrien datekin (ezin da egiaztatu egonaldia apirilaren 1ean hasi dela, hegazkina apirilaren 2an hartu bada).
Jatorrizko ziurtagiria	Jatorrizko ziurtagiria espedientean geratu behar da. Beste zerbaitetarako erabili beharko bada, komenigarria da bi ziurtagiri eskatzea edota jatorrizkoaren kopia konpultsatua eskatzea.

39. Bidaiak. Ohiko akatsak:

Joateko edo itzultzeko bidaia	Bidaia gastu moduan ordainduko dira joan-etorrietarako erabilitako taxi edo antzekoen gastuak, betiere fakturen abiapuntua edo helmuga hauek badira: tren eta autobus geltokiak, portuak eta aireportuak, eta eskatzailea joan den hiriaren barruan egindako bidaiak. Faktura horien kopurua ez da izan behar emandako laguntza baino handiagoa.
Joateko edo itzultzeko data	Ez dira onartuko egonaldiaren hasiera edo amaiera eguna baino 15 egun lehenagoko bidaia gastuak.
Garraiobidea	Ahal dela garraiobide publiko kolektiboak.
Txartel mota	Txartela turista mailakoa izango da, ez bada Ikerketaren arloko Errektoreordetzak maila handiagoko bat erabiltzeko baimena ematen duela , turista mailako txartela ez egoteagatik.

40. Bidaiak hegazkinez. Ohiko akatsak:

Non egin behar dut erosketa?	Edozein garraio operadore erabil dezakezu. Zuk erabakitzen du.
Faktura eskatu behar da?	Bai. Nahitaezkoa da gastua justifikatzeko.
Noiz eskatu behar dut faktura?	Eskatu faktura erosketa egiterakoan. Une horretan egiten ez bada, gero zailtasunak egon daitezke.
Ezin dut lortu faktura	Eskatu agiri bat garraio operadoreari, txartelaren prezioa eta bidaiaren data justifikatuko dituena.
Noren izenean egon behar da faktura?	Eskatzailearen izenean egon behar da, ez sailaren edo UPV/EHUren izenean.
Hegaldiaren erreserba daukat, eta bertan zenbatekoa agertzen da. Horrekin nahikoa da?	Ez, EZ delako faktura bat.
Hegaldiaren ibilbidea daukat eta bertan zenbatekoa agertzen da. Horrekin nahikoa da?	Ez, EZ delako faktura bat.
Hegazkineratzeko txartelak	Gorde egin behar dira, azkeneko justifikazioan aurkezteko.
Ordainketaren egiaztatzea	Txartelak ordaindu direla egiaztatu behar da, eta horretarako ordainketa agertzen den bankuko kontu laburpena eskatzen da.

41. Bidaiak autobusez, trenez edo bestelako garraibide publikoan. Ohiko akatsak:

Jatorrizko txartelak aurkeztu behar dira; beraz, gorde txartel horiek gastuak justifikatzeko. Justifikatzen ez diren gastuak ez dira ordainduko.

42. Bidaiak kotxez. Ohiko akatsak:

Bidaiak atzerrira	Ezingo da erabili ibilgailu partikularra, ez bada mugakide diren herrialdetara joateko edo aldez aurretik baimendu beharko diren salbuespen kasuetan.
Autobideko tiketak edo "Via T" delakoaren banku agiria	Aurkeztu egin behar da bidaiak justifikatzeko.
Autobideen erabilera	Bidaia autobidetik egiterik dagoen guztietan, bide hori erabili beharko da . Autobideko tiketak ordaindu egingo dira.
Ez dut erabiltzen autobidea	Bidaia gastuak ez dira ordainduko ez bada justifikatzen behar den moduan data eta ibilbidea
Nola kalkulatu da kotxez egindako bidaiaren kostua?	0,29 €/km

43. Bisatuaren gastuak

Egindako gastua egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu behar dira, egindako gastuaren kostua eta banku laburpena.

44. Mugikortasunari buruzko amaierako txostena

Erabili beharreko eredia web orrian dago, deialdiko beste dokumentuekin batera. Txosten hori onuradunak eta UPV/EHUko bere saileko zuzendariak sinatu behar dute. Egonaldiaren datak bat etorri behar dira bidaien datekin eta egonaldiaren ziurtagirikoekin (ikertzailea joango den zentroko anfitritioiak egin behar duen agiria).

LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauek bateragarriak dira egonaldietarako gastuak onartzen dituzten deialdietatik etorritako beste batzuekin, baldin eta ez badira egonaldiak espezifikoki finantzatzeko helburuz administrazio publikoek deitutako deialdiak (5.3 oinarria).

Nolanahi ere, deialdi honen babesean emandako laguntzak (gehituta egonaldia/mugikortasuna finantzatzen duten beste laguntzak, halakorik egonez gero) ezingo du gainditu egiaztasun gisa aurkeztu beharko diren jatorrizko fakturen zenbatekoa, ez eta UPV/EHUren edo, hala badagokio, ministerioaren kalte-ordainen arloko araudian finkatutako zenbatekoak ere.

Egonaldia finantzatzeko bada beste deialdi batzuetako laguntzekin batera, beren-beregi eman beharko da horren berri, adierazita deialdiaren datuak eta zehaztuta jasotako zenbatekoak. Horretarako, bete behar da azalpen hauekin batera bidaltzen den «Kofinantzaketa» dokumentua.

OSO GARRANTZITSUA: Kofinantzaketa baduzu, bidaiaren ostatu eta mantenu gastu guztien fakturak gorde behar dituzu. Faktura guztiak aztertuko dira gainfinantzaketa saihesteko. Gastuei buruzko datuak faltsuak izateak legezko erantzukizunak ekar ditzake.

ASEGURUA

Atzerrira joateko, jarri harremanetan Gizarte Segurantzaren arloko gaiez arduratzen den atalarekin (segsocial@ehu.eus), eta eman bidaiaren berri.

Ez da emango finantziario osagarririk aseguru medikoa kontratatzeke, ikertzaileak mota horretako aseguruak eskatzen dituen herrialderen batera bidaiatzen badu (deialdiko 5.1 oinarria).

NORA BIDALI BEHAR DITUT DOKUMENTUAK EGONALDIA AMAITU ONDOREN?

Egonaldia behin amaituta hilabeteko epea daukazue dokumentu guztiak helbide honetara bidaltzeko, PDF formatuan: rrhh-inves.dgi@ehu.eus. Jatorrizko dokumentuak ere barne postaz bidali behar dituzue, epe horretan, helbide honetara:

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

Giza Baliabideak

Errektoregoaren eraikina

LEIOA